

EKAINEAN JARRIKO DA ABIAN GERNIKALDEKO BEREIZMEN HANDIKO ZENTROA

Osasun Sailak gutun bat bidali die Busturialdeko eta Lea-Artibaiko biztanleei, zerbitzuak zabaltzeko hasierako fase horri buruzko datuekin. Horretaz aparte, herritarrei banan-banako informazioa emateko sailak eskuragarri jarri duen telefono-zenbakia ere aipatu du bertan.

Gernikaldeko Bereizmen Handiko Zentroa ekainean egongo da martxan. Hala baieztatu du Eusko Jaurlaritzako Osasuneko sailburu Jon Darpónek gaur, legebiltzarrean.

Osasun Sailak **gutun** bat bidali die Busturialdeko eta Lea-Artibaiko herritarrei, osasun-prestazio berriei buruzko informazioarekin. Apirilean, zerbitzu berriek hartzen dituzten udalerriei eman zien horren berri. Gutunak, gainera, informazio gehiago jaso nahiz zalantzak argitu nahi dituzten herritarrentzat sailak eskura jarri duen telefono-zenbakia ere (**946274000**) jasotzen du.

Horretaz aparte, gutunak herritarrei gogorarazten die ekainean abian jarriko den zerbitzu berria **pixkanaka** gauzatuko den hobekuntza globalaren zati bat baino ez dela.

Horrela, datarren hiletik aurrera honako zerbitzu hauek egongo dira martxan: erradiodiagnostikoa (OTA, ekografia, mamografia, erradiologia, X izpiak –orokorrak–), neurologia, oftalmologia, ekokardiograma, etxeko ospitalizazioa, ospitaletik kanpoko osasun mentala, birgaitze funtzionala eta larrialdiak (ZIU mugikorra).

Urrian, bestalde, larrialdietako zerbitzuaren txanda izango da, egun obra-eta egokitze-lanetan dagoena. Ebakuntza-gelak ere obretan daude, eta aurreikuspenen arabera, 2014ko lehenengo hilabeteetan irekiko dira.

Horretaz aparte, Osasun Sailak ekainean jardunaldi irekiak antolatzea pentsatu du, osasun-arretako eredu berriaren inguruan herritarrei lehen eskuko informazioa emateko. Berrikuntzei esker, eskualdeko ia **70.000 biztanleek arreta hobea eta gertukoa jasoko dute**. Kalkuluen arabera, Galdakao-Usansolo Ospitalera 80.000 joan-etorri gutxiago egingo dira.

2013/05/17

EL CENTRO DE ALTA RESOLUCIÓN DE GERNIKALDEA COMENZARÁ A OFRECER SUS NUEVOS SERVICIOS EN JUNIO

El Departamento de Salud ha remitido una carta a la ciudadanía de Busturialdea y Lea-Artibai, con datos de esta fase inicial de la ampliación y el número de teléfono que ha habilitado para ofrecer información individualizada

El Centro de Alta Resolución (CAR) de Gernikaldea comenzará a ofrecer sus nuevos servicios el próximo mes de junio, según ha confirmado hoy el Consejero de Salud del Gobierno Vasco, **Jon Darpón**, en comparecencia parlamentaria.

El propio Departamento de Salud ha informado **por correo** a los ciudadanos y ciudadanas de Busturialdea y Lea-Artibai de la puesta en marcha de estas nuevas prestaciones sanitarias, de las que ya dio cuenta en abril a los alcaldes de los municipios beneficiados. En la carta remitida ahora a la ciudadanía, el Departamento pone a disposición de la población un teléfono (**946274000**) específico para recabar más información o resolver las dudas.

Asimismo, la misiva recuerda que esta primera ampliación de servicios que se hará realidad en junio es sólo la primera fase de una mejora global que se aplicará **de forma progresiva**.

Así, el próximo mes estarán operativos los servicios de radiodiagnóstico (TAC, ecografía, mamografía, radiología, RX general), neurología, oftalmología, ecocardiograma, hospitalización a domicilio, salud mental extrahospitalaria, rehabilitación funcional y emergencias (base UVI móvil).

En octubre se pondrá en marcha el servicio de urgencias (actualmente en fase de obras y adaptación), mientras que la apertura de los quirófanos, también en obras, se estima que podría hacerse en los primeros meses de 2014.

El Departamento de Salud tiene previsto, además, organizar en junio una **jornada de puertas abiertas** para que los ciudadanos y ciudadanas de la zona puedan disponer de información de primera mano sobre este nuevo modelo asistencial sanitario que vendrá a **mejorar y acercar la atención a los casi 70.000 habitantes de la zona**, evitando, según estimaciones, más de 80.000 desplazamientos al Hospital Galdakao-Usansolo.

17-5-2013